



Hezkuntza Aiaraldean

HAURRESKOLAK
BATXILERGOA
LANBIDE HEZIKETA

GEHIGARRI
BEREZIA

*Gustu guztietarako
askotariko aukerak*

Laudio Ikastola

Haur Hezkuntza

Haurren autonomia eta ongizatea ipar



Haur baten ikasketa prozesuan berebiziko garrantzia dauka lehen pausoak nola ematen diren. Hori argi daukate Laudio Ikastolan, eta arreta berezia eskaintzen dute lehen urrats horiek haurrarentzat ahalik eta eroso eta onuragarrienak izan daitezen.

Hiru oinarri dituzte ardatz ikastolako haur hezkuntzako Sehaska eta Katuka geletan, haurren autonomia, ongizatea eta sozializazioa sustatzea helburu.

“Mugimendu askea” deritzona da oinarri funtsezkoena. Haur batek bere motrizitatea modu autonomo eta askean garatzea da xedea, oso onuragarria baita haurrarentzat helduen inolako presiorik gabe ibiltzen ikastea, ikastolako kideek nabarmendu dutenez. Horretarako arreta berezia jartzen diote haurra gurasoen eskuetatik hezitzaileen

Garrantzi berezia ematen diete haur eta helduen artean garatzen diren une bereziei, kalitatezko zaintza bermatzea helburu

eskuetara igarotzen den unea-ri edota eskola barruan dauden hainbat une bereziri: bazkalordua, garbitzeko unea, lo egitekoa... “Kalitatezko zaintza” sustatu nahi dute horrela, une horiek haurrarentzako ahalik eta atsegingarrienak bihurtzeko.

“Ikasketa prozesuaren epeak oso zabalak dira”, azaldu dute hezitzaileek, “badira 13 hilabeteekin oinez hasten diren hau-

rrak eta baita 20 hilabeteekin hasten direnak ere, eta hori normala da, ez da ezer gertatzen”.

Ostiralean (maiatzak 3) egingo dute ate irekien jardunaldia, baina beste edozein egunetan ere badago bertaratzeko aukera

Etengabeko prozesua

Hainbat aldaketa egin dituzte haur hezkuntzako espazioetan, arestian aipatutako haurren mugimendu askea bermatu eta sustatzeko. Txoko eta jolasgune zabalak atondu dituzte. Modu horretan, haurra modu librean mugitu daiteke gela batetik bestera, bere motibazioen arabera-ko ikasketa prozesua eratzeko.

Izan ere, Laudio Ikastolako hezitzaileen arabera, oso garrantzitsua da haurraren erritmoe- tan konfiantza izatea. Haurra- ren sozializazioa “modu bake- tsuan” egin behar dela defendatzen dute, “hori delako modua haurra osasuntsu eta gizarte- ratze helburuari aurre egiteko prest hezteko”.

Ate irekiak, ostiralean

Arestian aipatutako guztia gertutik ikusteko parada izango dute gurasoek ostiral honetan (maiatzak 3), ate irekien jardunaldiak egingo baitituzte 16:00etatik 18:30era. Hala ere, beste edozein egunetan ere badago bertaratzeko aukera, pauso pauso eraikitako proiektu honen nondik norakoak ezagutzeko.



Haurren sozializazio baketsua sustatzen dute ikastolan. **Laudio Ikastola**

Laudio Ikastola

AMETS BERRIAK LANTZEN

ATE IREKIEN EGUNA

MAIATZAK 3,
OSTIRALA
16:00etik 18:30era

MATRIKULA ZABALIK

maiatzaren 14 arte

0 - 1 URTE

2018 eta 2019an
JAIOTAKOENTZAT

ZATOZ IKASTOLA EZAGUTZERA ETA
ZURE SEME-ALABAREN IZENA DUEN
POLTSATXOA EMANGO DIZUGU!
ATE IREKIEN EGUNERA EZIN BADUZU
ETORRI, BESTE EDOZEIN EGUNETAN
HURBILDU, ATEAK EGUNERO IREKITA
DITUGU EZAGUTU GAITZAZUN.



telefonoa:
946726737



LAUDIO
ikastola
www.laudioikastola.eus

Hezkuntza

Haur Hezkuntzan eta Batxilergoan matrikulatzeko epea zabaltzeko

Matrikula Internet bidez edo ikastetxean bertan egin ahalko da. Haur Hezkuntzako matrikula garaia maiatzaren 10ean bukatuko da, eta Batxilergokoa 14an.

Abian da 2019-2020 ikasturtean Haur Hezkuntzan eta Batxilergoan apuntatzeko garaia. Haur eskoletan izena emateko maiatzaren 10a izango da azken eguna. Hain zuzen, gaurtik hasita maiatzak 2- 10era arte egongo da fitxa entregatzeko aukera.

Ekainaren 14an argitaratuko dituzte behin-behineko zerrendak; erreklamazio epea zabaltzeko ekainaren 17tik 28ra. Era horretan, eskaera ukatu ahal izango da, ekainaren 28 arte. Behin betiko zerrendak uztailaren 12an egingo dira publiko. Hala, irailaren 5ean hasiko dute ikasturtea, eskolaratu berriek.

Eusko Jaurlaritzak zehaztu duenez, apirilaren 10a baino beranduago jaiotakoekin soilik egingo dute salbuespena: "Apirilaren 10etik aurrera jaiotakoek maiatzaren 10etik aurrera ere aurkeztu ahal izango dute fitxa, euren jaiotze datatik hilabete bat bete arteko epean".

Modu horretan, behin behineko edota behin betiko zerrendetara gehituko dira. "Alabaina, izen-ematea gauzatuz gero ezin dute dokumentazio berririk aurkeztu".

Ildo beretik, ekainaren 28tik aurrera jasotzen diren eskaerak uztailaren 12a igaro ostean kudea-

tuko dituzte; hots, behin-betiko zerrendak publikatu eta gero, "beti ere dagokion adin tartean plaza librerik balego".

Batxilergorako izen-ematea

Batxilergoan, berriz, maiatzaren 2tik 14ra luzatuko da eskaera aldia. Ikastetxean bertan edota internet bidez eman ahalko da izena, ikasgunea.euskadi.eus helbidean, baina online sistema hautatzen dutenek maiatzaren 13a izango dute muga egun. Eskatzaileek gehienez 24 eskaera egin ahalko dituzte guztira. Gainera, esleipen edo prozesuaren berri online jarraituko ahalko da.

Etxaurren Haurreskola

Haurrei euren mugimendu propioak garatzen uzten dien haurreskola

Aiarako Ibaguen auzoan (Zuhatzan) dago Etxaurren Haurreskola. Bi gela ditu eta bere hezkuntza proiektu propioa du. Haurrei euren mugimenduen bidez "garapena lortzen uztea" dute helburu hezitzaileak.

Modu horretan, helduek "bidelagun" funtzioa hartzen dute,

haurrei euren kabuz egin dezaketenguztia egiten utzita. "Haurraren erritmoa eta ezetza" errespetatzen dituzte horretarako, "berak bere mugimendua gorputzean bizi, esperimintatu eta barneratu dezan".

Haurreskola ezagutzeko beta
Hezitzaileek guraso guztiei

luzatu diete haurreskola ezagutzeko gonbita. Maiatzaren 2tik 10era luzatuko da matrikulazio epea.

Horrez gain, badago hezkuntza zentroari buruzko informazio gehiago lortzeko beste modu bat: haurreskolak.eus webgunea sartzea edo 945399727 telefono zenbakira deitzea.



HAIZEA PARIS BENGOTXEA

HEZITZAILEA

Aisialdikoak



Kirikino

Norbaitek "aisialdi" hitza ahoskatzen duenean, ume garaian ikasi nuen hierarkia hitza datorkit burura. Baina hierarkia aipatzen dudanean ez naiz ari heldua haurra edo gaztearen gainetik jartzearen botere harremanaz, ez. Hemen aipatu nahi dudana hierarkia ditxosozko hori hezkuntzan ari garen helduon artean ematen dena da. Hau da, aisialdiko langileak hezkuntzaren esparruan azken mailan, beheko aldean, daudela. Hau dela eta, euren profesionaltasuna gutxiesten da egunero, momentu oro. Irakasle, andereño, hezitzaile, laguntzaile eta abarren ostean aisialdikoak daude. Baina zintzoa izanda, duela gutxira arte nu nintzen aisialdiko langileak baloratzen ez zituen lehena, nire ikasketez harro.

Dena den, Haur edo Lehen Hezkuntzako ikasketak izan arren, horrek ez gaitu irakasle bihurtzen edo, bestela esanda, monitoretzako titulua izateak ez gaitu aisialdiko profesionalak bihurtzen. Argi izan beharko genuke tituluek ez gaituztela profesional bihurtzen, ateak zabaltzeko eta aukerak probesteko eskaintza baino ez digute ematen. Titulurik gabeko irakasle ederrak ezagutu ditut bizitza honetan.

Aisialdian lan egiten dudanetik, burua galdera eta zalantzaz beterik dut. Zerk du garrantzia handiagoa, idazten ikasteak ala lengoia musikala menperatzeak? Algebra ezagutzeak ala gorputzaren bitartez mundua aztertzea eta ezagutzeak? Zein da hezkuntza eta aisialdiaren arteko muga? Ez al dute biek behar bera asetzen, ongizate eta hazkuntza ahalbidetzea? Eta noren beharrak asetzen ditugu, haur eta gazteenak ala familienak?

Lanbide honetan gero eta gehiago ibiltzean zalantzak handituz joan arren, benetan zorionekoa sentitzen naiz. Izan ere, aisialdia errespetatzen ikasi dut, ez bakarrik ulertzen. Gure lanari dagokion garrantzia eman behar zaio, haur eta gazteek aisialdian ere aske gozatu eta aske ikasten dutelako. Aspaldi irakurri nuen bezala, haur eta gazteek ez dute egiten nahi duten guztia, baina egiten duten guztia egin nahi dute.

Begirale, bidelagun ala hezitzaileatzat jo dezakezu zure burua, bakoitzari etiketak jartzeko ardura norbanakoarena da. Baina ez ahaztu, begirada, sostengua eta hazkuntzarekiko ardura dagokion lekuan eta momentuan jartzen.

Elkarrekin "gozikasi" dezagun.

Gora bizitza! Gora aisialdia!



ETXAURREN HAURRESKOLA

Izena emateko epea zabalik!
Maiatzaren 2tik 10era

Etorri ezagutzera zure haurraren txokoa!

www.haurreskolak.eus

Ibaguen auzoa 1, ZUHATZA · 945 39 97 27

Erreportajea

Aurten 35 urte beteko ditu Laudioko Kirikiño aisialdi taldeak. Hiru hamarkada baino gehiago daramatza funtzionatzen, baina azken urtean salto handia eman du bere jardunean. Horrez gain, aisialdi talde berriak sortu dira eskualdean:

Arespalditzako Kili-kili, Aretako Pinpili edota Aiaraaldea Ekintzen Faktoriaren parte den Kokoriko kasu. Badirudi hezkuntza ez formalaren loraldi berri bat gertatzen ari dela Aiaraaldean.

Aisialdi taldeen loraldi berria



Ortua atondu dute Kirikiño aisialdi taldeko kideek. Kirikiño

35 urte beteko ditu aurten Laudioko Kirikiño aisialdi taldeak. "1984an sortu ziren elkartearen estatutuak, hori izan da urteurrenak kontatzeko abiapuntua. Baina taldea berez lehenago sortu zen. Sortzaileekin harremanetan jarri gara baina ezin izan digute jaiotzaren data zehatza eman". Hala azaldu du Ander Fernandezek. Bera da Laudioko aisialdi taldea osatzen duten kideetako bat. Egun, 15-20 pertsona inguru dauke taldean.

Egitasmo berriak

Elkarte ezaguna da Kirikiño Laudio. Urte asko daramatza herriko jai eta ekitaldietan umeentzako tailer eta jolasak eskaintzen. Orain, baina, salto bat eman dute taldearen jardunean. "Ikusi genuen beti berdina edo oso antzekoa zela egiten genuen guztia. Gauza batzuk berriak nahi genituen". 2018ko irailean eman zu-

ten lehen urratsa. "Orduan iragarri genuen Negulekuak egingo genituela abenduan eta ekimen horren antolakuntza murgildu ginen". Egitasmoak "harrera oso ona" izan zuela nabarmendu du Fernandezek, "plaza guztiak bete ziren. Aurrera jarraitzeko bultzada izan zen".

Otsailean garatu zuten proiektu guztia. Bi ildo zehaztu zituzten: Elikadura eta ikuskizunak. Ellakuriko udal ortuetara jo zuten lehen ildo jorrazteko. "Baratza atondu dugu bertan, umeekin elikaduraren ziklo osoa egiteko: ekoiztu, kozinatu eta jan". Orutik lortzen dituzte barazkiak sukaldaritza tailerrera bideratzea da euren asmoa, "koinatutakoa denon artean bazkaltzeko gero". Ikuskizunen alorrean, al-diz, umei bideratutako eskaintza kulturala osatu nahi dute. Zinema proiektzioak egiten hasi dira, baina antzerkiak eta beste-



IKT Ikastetxe Eredua
Modelo de Madurez TIC
MAILA AURRERATUA / NIVEL AVANZADO



Matrikula
Zabalik

La Milagrosa Ikastetxea



94 672 07 01

www.lamilagrosalaudio.eus

B eta D ereduak
0-16 urte
Zerbitzu anitzak
Ordutegi zabala

Ikaskuntza Kooperatiboa
Teknologia Berriak
Askotariko Adimenak
Hizkuntzak

Erreportajea

lako ikuskizunak eskaintzea ere badute helburu. Fernandezek azpimarratu dutenez, haurrek dute zer eta nola egiteko erabakimena. “Eurek erabakitzen dute zer landatu, zer filma ikusi edota zerkozinatu”. Kirikiñoko kidea pozik azaldu du eginiko apustuak izan duen emaitzarekin. “Espero baino harrera hobeagoa izan du. Pentsatzen genuena baino askoz azkarrago jendarteratu dira proiektuak”.

Etorkizunera begira, arestian aipatutako biildo horiek garatzen jarraitzeko prestutasuna erakutsi dute Kirikiñoko kideek. “Udan auzolanak egin nahi ditugu familia eta umeekin. Horrez gain, badugu taldearen urteurrena ospatzeko jai egun bat antolatzeko asmoa, irailean”.

Eskualdeko aisialdi taldeak

Kirikiño ez da Aiarraldean dagoen aisialdi eragile bakarra. Azken hamarkadetan mota horretako talde ugari egon dira eskualdean. Frankismoaren itzalpean

Lehen aisialdi taldeak Frankismoaren garaian sortu ziren, elizari lotuta. 80-90. hamarkadetan, aldiz, ugaritu egin ziren

sortu ziren lehenak, elizari lotutako talde gisa. Catequesis y tiempo libre izeneko taldea egon zen Artziniegan eta Tiempo libre izenekoak, aldiz, Urduñan.

Gerora, baina, beste hainbat talde sortu dira, Amurrioko Aspaltza kasu. “1995an sortu zen, euskalgintza munduan mugitzen ziren hainbat kideren eskutik”, azaldu du Irantzu Molinuevok, “ikastetxeetatik kanpoko aisialdian ere euskara sustatzea zen helburua”.

Zinema proiektzioak egiten hasi ziren, baina laster pasa ziren bestelako tailerrak eskaintzera. Orain, aldiz, ludoteka zerbitzua da antolatzen duten ekintza nagusia, taldearen egoitzan bertan eskaintzen dutena. “Umeen oporraldietan egiten dugu, familien antolamendua errazteko asmoz”.

Hor daude baita ere Amurrio eta Urduñako eskaut taldeak. Lehena oso talde beteranoa da. “Duela 41 urte sortu zuen Felix Murgak. Gaur egun berak ezarrituen oinarri gehienak sustatzen saiatzen gara”, azaldu dute

Aisialdi talde berriak sortu dira azken urteetan: Aretako Pinpili, Arespalditzako Kili-kili edota Kokoriko Hezkuntza Faktoria

taldeko kideek. Hurrei “aukera berriak” eskaintzea dute helburu: “naturak eskaintzen dizkigun altxorrek bizitzen ikasi, beste adin eta sexutako jendearekin erlazionatzen ikasi, nagusiek txikietaz ikasi eta txikienak nagusiez... Begirale, haur eta guraoen artean sortzen den “familia giroa” nabarmendu dute. “Gainera, euskaraz hitz egiteko aukera ederra da, euskaraz komunikatzen garelako”. Horrez gain, haurrak “pertsona kritiko” bihurtu nahi dituzte, “txikiak direnetik nagusi izan arte eurekin lan eginda”.

Hilero biltzen dira zer jarduerarekin zehazteko. Adinka banatzen dituzte taldeak, eta hiru hilero helburuak zehazten dituzte, “helburu horiek betetzeko ekintzak planteatzeko”. Gauzak hala, talde bakoitzak bere egitasmo eta proiektu propioak garatzen ditu. Talde horietako bat izan zen iragan udan Greziako errefuxituen kanpalekuetara joan zena. “Ez dute horretara mugatu nahi. Ho-

Tipi Tapa

Telefonoa: 945 893 259

Matrikulazio epea: Maiatzaren 2tik 10era

Tipi Tapa Haurreskolak badu xarma berezia. Haurra da protagonista, haurra eta familia. Errespetua, denbora, konfiantza, presentzia, espazioa, materiala txukuntasunez jantzia, malguta ordutegia, denei ongi etorria, ate irekietarako gonbitea, iragarkia, **maiatzak 4 larunbata**, hemen dugu zita handia, animatu ta ezagutu. Tipi Tapako magia.



ZER ESKEINTZEN DUGU?

Neurrirako harrera garaia eta banakako arreta, kalitatezko zaintzak, mugimendu askea eta jolas librea.

TIPI TAPA
HAURRESKOLA AMURRIO



Arenaldé kalea, 5 AMURRIO
945 89 32 59

HAURRA ETA FAMILIA

Zer eskaintzen dugu?

- 0-2 urte
- Ordutegia: 7:30 – 17:00
- Kalitatezko zaintzak
- Mugimendu askea
- Jolas librea
- Material eta espazio egokiak

Matrikulazio epea:
Maiatzaren 2tik 10era



Goian -ezkerretik eskuramara- Amurrioko Aisia Eskaut Taldeko kideak eta Aretako Pinpili

Erreportajea

rregatik, arropa bilketa bat egin dute eta bideo bat egiten ari dira pertsona errefuxiatuei buruzko 10 topiko apurtzeko”.

Loraldia

Arestian aipatutako guztia kontuan hartuta, eskualdeko aisialdi taldeak indartsu daudela ondorioztatu daiteke. Azken urteetan, gainera, talde berriak sortu dira eskualdean. 2017an Kili-kili taldea sortu zuten Arespalditzako guraso batzuek, haurren aisialdia kudeatzeko.

Aretan, aldiz, iaz sortu zen aisialdi taldea. “Ikusi genuen ez zegoela aisialdirako aukerarik. Bazeuden eskolaz kanpoko ekintzak, baina ez ziren pertsona guztientzako eskuragarriak eta ez zituzten guretzako garrantzitsuak ziren hainbat balioak lantzen”, azaldu dute egitasmoaren sustatzaileek. “Jaietan eta beste une batzuetan egiten ziren tailerrek zuten harrera ikusita, urte osoko programa osatzea erabaki genuen”.

Hasieran, Aretako Gazte Asanblada izan zen eskaintza hori antolatzen zuena, baina handik urtebetera aparteko talde bat sortzea erabaki zuten. Horrela jaio zen Pinpili aisialdi taldea.

Hiru ildo lantzen dituzte: Euskara, Aretako herri izaera eta autogestioa. Hainbat adin, ezaugarri eta jatorritako haur eta gazteak biltzen dituzte. “Jende asko hurbildu da eta aurrera jarraitze- ra animatu gaituzte. Ekintza berriak planteatzen ari gara, proiektuari jarraipena emateko, urteetan mantendu dadin”.

Iragan urtarrilean, aldiz, Kokoriko Hezkuntza Faktoria aurkeztu zen Laudioko Lamuza parkeko Kasinoan, hezkuntzan euskaraz eta euskaratik eragiteko. Ekintza andana antolatu dute proiektu jaioberri horretako kideek, eta aurtengo udari begira ere beste horrenbeste prestatzen dabilta. Hezkuntza gehigarri honen kontrazalean topatu daiteke egingo dituzte hurrengo jardueren informazio guztia.



Jarduera ugari egin dituzte Pinpili Aisialdi Taldeko kideek Aretako Kultur Etxean. **Pinpili**



aisialdi taldekoak. Behean, Kirikiñoren ekintza batean hartutako irudia.



Matrikula irekia urte osoan zehar

KALITATEZKO IKASTETXE EUSKALDUN, BERRITZAILE ETA MUNDUARI IREKIA NAHI DUZU? ETA... ZERGATIK EZ VIRGEN NIÑA IKASTETXEA?

PROIEKTUA

Oinarriak ezarri. Ezagutzak eraiki
0-16 urte artekoa



- Hezkuntza emozionala
- Tutoretza plan bateratua
- Pastoralta

- Kirik proiektua (HH)
- Ulermenerako hezkuntza: Harvard Unibertsitateko Project Zeron oinarritutako berezko proiektuen arabera ikaskuntza
- Ikaskuntza kooperatiboa
- Irakurketa plana
- Eleaniztasuna: D eredua eta ingeles indartua

- Ikasketa-zerbitzu proiektua
- Eskola Agenda 21

Dionisio Aldama, 16 01470 Amurrio 945 393 544 info@virgennina.com virgennina.com

Laudio Ikastola

Batxilergoa

Esperientzien txokoa jarri dute abian Laudio Ikastolako Batxilergoan. Adituen, ikasle ohien zein gurasoen hitzaldi eta mahainguruak antolatzen dituzte bertan, ikasleei euren

etorkizunari begirako gogoetak egin eta erabakiak hartzen laguntzeko. Hori baita, hain zuzen ere, ikastolaren helburua: ikasleei hezkuntza integrala eskaintzea.

Esperientzien txokoa, etorkizunari aurrez aurre begiratzeko abagunea



Ikasle ohiekin eta gurasoein mahainguruak zein bestelako ekintzak antolatzen dituzte ikastolan, ikasleek etorkizunera begira izan ditzaketen dudak argitzeari begira. **Laudio Ikastola**

Aurten ere esperientzia txokoak jarri dituzte abian Laudio Ikastolako Batxilergoan. Ikasleei formazio integrala eta etorkizuneko ikasketei begirako orientazio zuzen eta pertsonalizatua eskaintzea da egitasmoaren xedea. Hainbat gauza egiten dituzte horretarako. Alde bate-tik, unibertsitatetik zein lanbide heziketatik bertaratutako adituen hitzaldiak antolatzen dituzte.

Horrez gain, mahainguruak ere egiten dituzte ikasle ohiekin eta gurasoein. Solasaldi horietan parte hartzen duten guraso eta ikasle ohiek euren ibilbide profesionalaren eta bizipenen nondik norakoak kontatu eta ikasleen zalantzak erantzuten dituzte. Gainera, saio bereziak egiten dituzte hezkuntzarekin lotutako ikasketak egin nahi

dituzten ikasleekin. Esaterako, Ikastolako Haur Hezkuntzara eramaten dituzte bisitan, bertako lana eta egunerokoa lehen eskutik bizi dezaten.

Egitasmo gehiago

Esperientzien txokoa da Laudio Ikastolako Batxilergoan abian jarri duten azken ekimena, baina ez bakarria. Ikastolaren filosofia orokorrari erantzuten dio proiektu horrek. Ikasleei "formazio integrala" eskaintzea da helburua, giza eta adimen heldutasuna lortzeko eta bizitza aktiboan arrakastaz eta erantzukizunez jokatzeko.

"Inguru afektibo eta emozional egokia" sustatzen dute horretarako, "konfiantza oinarritutako hezkuntza hurbila" sustatuta. Illo horretan, garrantzi berezia hartzen dute ikasle eta

irakasleen arteko harremanek. Ikastolan dauden profesionalen (orientatzaileen eta tutoreen) bitartez, behar duten informazioa eta erabakietarako laguntza eskaintzen zaie ikasleei. Batxilergo derrigorrezko etapa ez izan arren, Laudio Ikastolan DBHren eta Batxilergoaren arteko koordinazioa bermatzen dute.

Hori dela eta, DBHko azken mailetan eta Batxilergoan aritzen diren irakasleak berdina izaten dira, modu horretan ikasleen ikasketa prozesuaren jarraikotasuna sustatzeko. Horrez gain, tutoretzari garrantzi handia ematen diote. Bi astero antolatzen dituzte tutoretza saioak, ikasleei jarraipen hurbil eta egoki bat egin eta kalitatezko orientazioa bermatzeko. Bi Batxilergo modalitate eskaintzen dituzte ikastolan: Giza eta Gizar-

Ikasleei formazio integrala eta etorkizuneko ikasketei begirako orientazio zuzen eta pertsonalizatua eskaintzea da Laudio Ikastolaren xedea

te Zientziak eta Zientzia eta Teknologia.

Irteerak eta barnetegiak

Gainera, barnetegia antolatzen dute Batxilergoko 1. mailan, ikasleen arteko elkar-ezagutza sustatzeko, besteak beste. Bestelako irteerak ere egiten dituzte: eskiatzera, antzerkia ikustera, museotara... Unibertsitate eta Lanbide Heziketa Eskolak ere bisitatzen dituzte, ikasleei orientazioan laguntzeko. Horrez gain, begirale eta EGA ikastaroak ere eskaintzen dituzte.

Arestian aipatutako hezkuntza integral horren emaitza dira ikasleek lortutako errekonozimendua. Batxilergo 1. mailako ikasleak, adibidez, bi urtez jarraian saritu dituzte Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarea Sarietan.

Laudio Ikastola

IKASTOLA BIDE LAGUN

telefonoa:
946726737

**BA
TXI
LER
GOA**

**MATRIKULA
ZABALIK**

maiatzaren 14 arte



LAUDIO
ikastola
www.laudioikastola.eus

Laudio BHI

IES LAUDIO BHIkoa da Arte Batxilergoa ikasteko Aiaraldeko aukera bakarra



Apirilaren 4an gure institutuko bi ikaslek UNRWAK antolatutako argazki lehiaketako hiru sarietatik bi jaso zituzten, EAEn aurkeztu ziren 80 lanen artean, Bilbon egindako ekitaldi dotore batean. Izan ere, hurbileko eta urrutiagoko arte mugimenduekin harreman zuzenean bizi gara Laudio Institutuan.

Ikasle baten etorkizuna hoso ugari dituen margarita dela esan dezakegu. Askoren iritzia-zen kontrara, garbi dago margodun hostoek mundua desberdin ikusten lagunduko diotela,

baina oinak beti lurrean dituela. Jakina da, gaurko gizartean diseinuak edo ikus-entzunezko komunikazioak zer indar daukaten. Eta zer esan bitxigintza, dekorazioa, ilustrazioa eta abar luze bateko hostoei buruz? Goi mailako ikasketak, unibertsitatea zein formazio zikloak egiten jarraitzeko edota lan mundura salto egiteko tranpolin segurua da Arte Batxilergoa.

Ate asko irekiko dizkizu arteak, eta hori bai, gustuko zerbait egiten, afizioa ofizio bihurtzen lagunduko dizugu. Ez galdu aukera hau!

Ile-apainketa eta estetika ikasketetan erreferente

Estetika, ile-apainketa eta edergintza ditu ardatz Laudio BHIren Lanbide Heziketaren alorrak. Institutuak Oinarritzko lanbide heziketa eskaintzen du ile-apaingintzan, A ereduaren. Ez da DBH titulua izan behar eta profesionaltasun ziurtagiria lortzen da Erdi Mailako zikloko ikasketetan sartzeko.

Estetika eta Edergintza Zikloari dagokionez, teknologia eta teknika berrienak baliatu eta irakasten dira. Alor horretan erreferentea da Institutua, ikasketak horiek eskaintzen dituen zentro publiko bakarra baita eskualdean. Ikuspegi praktikoa eskaintzen dute eta, nabarmendu dutenez, oso altua da lanpostua

lortzen duten ikasleen kopurua. Enplegurako formazioa eskaintzen du Laudio BHIk, baita hezikuntza behar bereziko ikasleentzat ZIGa ere. Maiatzaren amaierara arte izango da aurrematrikula egiteko aukera. Horretarako informazio guztia www.laudioinstitutua.net atarian edo Laudio institutua Facebook kontuan topatu daiteke.

Praktikak atzerrian

Praktikei dagokienez, Erki degoko enpresa garrantzitsuetan egiteko aukera izan ohi dute ikasleek; baita praktikak atzerrian egiteko ere, Erasmus programen eta diru-laguntzen bidez.

“Unibertsitatean beharrezkoak diren arloen oinarriak oso argi ematen dituzte Laudio BHIn”



LANDER TEMIÑO LOPE LAUDIO INSTITUTUKO IKASLEA IZAN ZEN. IDOM SARIA ESKURATU DU, GRADUKO 3. MAILAN ESPEDIENTERIK ONENA ERDIETSI DUELAKO.

Industria elektronikoaren ingeniari-ritza ikasten ari da Lander Temiño Lope. Goiko argazkian erdian agertzen da. Bere alboan daude Blanca Atxa Ainz eta Urtzi Puente Gomez. Hiru erlortu zuten Idom Saria.

Zein ingeniari-ritza espezialitate ari zara egiten?

Industria Elektronikaren eta Automatikaren ingeniari-ritza, industria arloan elektronika eta automatizazioarekin zerikusia duten makina eta sistemen diseinua, alegia.

Zergatik aukeratu zenuen karrera eta espezialitate hori?

Institutuan, teknologia ikasgaietan, hiruzpalau praktika egin genituen elektrizitate eta elektronikaren arloan. Praktika horiek gustatu egin zitzaizkidan eta Interneten dauden eraikuntzak ikusita, elektronika ikastea erabaki nuen.

Zein izan da ikastetxearen eragina unibertsitateko ikasketak aukeratzean?

Argi neukan zientzia adarretik joan nahi nuela, batxilergoa hasi baino lehen. Matematika, Fisika, Kimika eta halako ikasgaiak betidanik gustatu zaizkit. Horregatik, aukeratu nuen Zientziak Batxilergoa. Ondoren, lehen esan bezala, institutuan teknologia ikastea, ingeniari-ritza aukera-

tuko nuela erabaki nuen, gustukoa bainuen.

Alde handia sumatu zenuen fakultatera pasatzean?

Lehen urtean ez zen gehiegi somatu. Ikasketetan aldea baze- goen, baina unibertsitatean batxilergoan emandako zeinbat gai ematen dira, sartzen garen pertsonen maila nolabait berdintzeko. Handik aurrera maila aldaketan nabarmenagoa egiten da. Edonola ere, saltoa sumatu egiten da, unibertsitateko irakasleak urrunago sentitzen dira.

Ikastetxean euskaraz egin zenuen ibilbide akademiko osoa, orain irakasgaiak euskaraz kurtzatzeak ba al du jarraipenik?

Zaila ikusten dut hori. Ingeniari-ritzan, bereziki nire espezialitatean, gauza gehienak ingelesez idazten eta izendatzen dira. Gainera, nire ustez, gaztelaniaz gradua egiteak Espainia osoan aukera gehiago ematen ditu, beste ingeniariarekin ulertzea errazago bihurtzen baita.

Zein motatako lana izango zenuke gustuko etorkizunean?

Potentzia elektronikaren arloan gustura egingo nuke lan. Elektronikaren arlo honetan haize-sorgailu, eguzki-panel, energia berriztagarri eta linea elektrikoekin lan egiten da, haien diseinu, kontrol eta mantentzea

eginez. Hori, edo irakaskuntza, jendeak irakasle izateko gaitasuna daukadala esaten du eta irakastea gustatzen zait.

Zeintzuk dira zure asmoak ikasketak bukatutakoan?

Seguraski master bat egitea, baina lan egitea ez dut kanpo uzten. Gaur egun enpresa gehienek esperientzia eskatzen dute, ia derrigorrezkoa da. Beste aukera bat, masterra lan egiten ari naizen bitartean egitea izan daiteke, baina azken honetaz ez nago hain seguru, lan gehiegi izan daiteke eta.

Zein aholku emango zenieke Batxilergoan ikasten ari direnei?

Gustatzen zaien arloa aukeratzeari, unibertsitatean aukeratzaren duten gradua haien bizitzan zehar egingo duten lana izan daitekeelako, seguruenik. Horretaz aparte, Interneten arlo horri buruzko informazioa bilatzea eta ikertzea aholkatzen diet, ikastetxean eman ezin dituzten gauza interesgarriak agertzen dira eta.

Nola animatuko zenituzke gazteak gure ikastetxera ikastera etor daitezen?

Laudioko Institutuan, nire esperientziatik, unibertsitatean beharrezkoak diren arloen oinarriak oso argi ematen dituzte, unibertsitateko lehen urtean nabarmena egiten dena.

Cambridge tituluaren azterketak Laudion egingo dituzte berriro

Ekainaren 15ean Preliminary Test tituluaren azterketa izango da eta 22an First eta Advanced proben txandak helduko dira.



Laudioko eta inguruko herrietako ikasleek egin ahalko dituzte azterketak. Wikipedia

Helduen Hezkuntzako ikas-tetxean izango dira deialdiak ekainaren 15ean eta 22an. Lehen egunean Preliminary Test proba egingo da eta hurrengoan First eta Advanced Cambridge tituluaren azterketak. Deustuko Hizkuntza Zentroarekin elkar-

lanean egingo dira berriro eta gutxienez 20 lagunek eman beharko dute izena azterketa bakoitzeko. 2017an hasi zen Laudio Udal deialdiak antolatzen eta herriko zein eskualdeko ingeles ikasleek eman dezakete izena.



ITZIAR URQUIJO CELA

PSIKOPEDAGOGOA


Nondik eta norantza?

Hezkuntza, herri batek duen tresnarik boteretsuena dela ongi daki pertsonak. Urtetan zehar moldatu eta etengabe eraldatzen doan fenomeno izanda, inguruko hizketa eta eztabaidetan aurkitzen dugu nonahi. Azkenaldian, edozeinek du hezkuntzaren inguruko iritzia emateko gogo eta geroz eta ulertezinagoak dira hezkuntzaren izenean egiten direnak.

Askok, eskola ikusten dute hezkuntzaren ikur, ahaztuta eskola ez dela betidanik existitu eta ez dela betirako existituko. Hau dena, beldurragatik gertatzen zaigu, gizakiak beldur baitio hezkuntza kontzeptu libreari. Baliteke gaur egun daukagun kontzepturik askeena izatea hezkuntza eta tamalez, burugogor ari gara hermetiko bilakatzen. Formaltasunez janzteaz gain, jerarkizazio bat ezarri nahi zaio eta hori gutxi balitz, normatibo izatera bultzatu. Hau dena, ikara ekiditeko egiten dugu, askatasun horren erantzukizuna saihesteko eta beste baten sor-baldetan uzteko gurea dena.

Askea den alorrari harresiak eraiki dizkiogu gure errubrikan kokatu ahal izateko. Inklusio hitzari zentzua kendu diogu integrazioa abian ipiniz, desberdina dena onartuz gure mugetatik harago. Argi dago: hezkuntzak milaka aurpegi ditu, milaka hizkuntza, milaka kolore, milaka emozio, milaka aukera, milaka erabaki, milaka ezaugarri eta betetzen ez den helburu bakarra: hezitzea.

Hau dena zergatik? Noiz hasi ginen honetan eta norantza goaz? Erantzun errazik ez eta betiko dilema berdinerara buelta: gaur egungo hezkuntza daukagu, daukagun gizarteagatik edo gaur egungo jendartea daukagu, daukagun hezkuntzagatik? Esan bezala, ebazpena ez da erraza, are gehiago, beharbada ez da ebazpenik planteamendu horretarako. Baina gauza bat argi dago, garrantzitsua dena bigarren plano batera pasa dugula inork esleitu ez digun botere batez baliatuz. Eta oker gaude, Freirek ongi azaldu zuen bezala inork ez duelako inor hezten, inor ez delako bakarrik hezten, denon artean hezten garelako.



0 - 18
urte

Hautzaindegia / Haur Hezkuntza
Lehen Hezkuntza / DBH / Batxilergoa

Foru plaza, 5
48460 Urduña (Bizkaia) 945 38 48 30
secretaria@colegiojosefinos.com



IKT Ikastetxe Eredua
Modelo de Madurez TIC
MARIA ERTAUNA / NIVEL MEDIO



**ANTZINAKO
ANDRA MARI
IKASTETXEA
URDUÑA**

Laudioalde

“Martxan dago Lanbide Heziketaren V. Euskal Plana”



JAVIER AIZ SALAZAR IES LAUDIOALDE LANBIDE ESKOLA BHIKO ZUZENDARIA DA. IKASTETXE HORRETAKO NONDIK NORAKOEN INGURUAN MINTZATU DA.

Duela gutxi Lanbide Heziketaren V. Euskal Plana onartu da. Zertan datza?

Norabidea marrazten digun itsasargia da, formakuntza egungo beharretara moldatzeko, jada errealitate den laugarren industri iraultzak eragindakora. Egun, arlo ekonomikoan aldaketa disruptiboak ematen ari dira, egungo egoera hobetzeaz gain, etorriko diren aurreikuspenekin ere aurrera egin beharko dutenak, ahal den heinean euskal enpresan gertatuko denari aurre hartzeko. Etorkizuneko erronka handiei begira asmo handiko plana da.

Zein eremu betetzen ditu Planak?

Ikaskuntza 4.0 inguruan, EAEko LHn «Errendimendu handiko Ziklo» en ereduak zabaldu eta egonkortzea. Berrikuntza, teknologia eta sistema adimendunak, lankidetzaren adimena, biozientziak eta garapen jasangarria, nazioartekotzea, konplexutasun kudeaketarekin zerikusia duen guztia, Talentuen Euskal Institutua martxan jartzea, Euskal Herriko LHko ikerketa aplikatuko zentroaren eraldatzea, TKNKA, antolakuntza adimentsuetara gerturatzea...

Nola eraldatuko da LHa Plan berri honekin?

Euskadiko LH etengabeko garapenean dago. Eraldaketa horretan norabidea jartzen digu Planak. Errendimendu handiko zikloei toki pribilegiatua bilatu behar diegu (ETHAZI). Erronketara bideratutako formakuntza izaten saiatzea eta ikasleak beste era batera lan egiteko prestatzea, non beraien etorkizunean berrikuntza eta ekin-tzailatza giltzarri izango diren.

Nola lan egiten da ikasleekin horrelako formakuntza batean?

Formakuntza lantzeko modu berri honek adimena jarreratik landu behar du, elkartasuna eta jasangarritasuna kontzeptu propio gisa hartuta eta, jakina, beraien gaitasuna hiperkonektibitatera

eta globalizaziora bideratua egon behar da.

Zein da ikasle profila?

Garapen nabarmena izan du. Ikasleek oso barneratuta dute zein den enpresen eskaria, horri buruzko informazio gehiago dago. Industriarekin oso lotua dagoen eskaria da. Nazioartekotzeko prestatua dagoen ikaslea ere bada, geratzeko etorri den kontua.

“Emakumeak Lanbide Heziketa industrialean txertatzea da gure erronka”

Zein da emakumearen pape-ra Lanbide Heziketan?

Hori da gure erronka nagusia. Emakumea sartze, zehazki LH industrialean, lortu beharreko ezinbesteko urratsa da. Generoen arteko arrakala hor dago eta plan iraunkor bat behar du emakume eta gizonen berdinketa errealerako. Sozialki urratsak ematen ari gara, baina esaten dugun horretan emakumea sartzea asko kostatzen zaigu, tradizioz maskulinizatutako sektoreetan sartzea. Iraunkortasunak, sentsibilizazioak eta ikuspegia arazoan ongi ezarrita izateak ekarriko digu dinamika horiek aldatzea.

Lanbide Heziketa lanean txertatzea nola dago?

LHko lan poltsak, zorionez, hutsik daude, enpresek egindako eskariak ezin beteta ibili behar izatera iritsita. Espezialitate askotan lanean txertatzea % 100era iristen da. LH Duala enpresetan nabarmenki zabaltzen ari da, lanean txertatzea altuagoa izatea ekar lezakeena.



LAUDIOALDE LANBIDE ESKOLA

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA

- Soldadura

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Administrazio-kudeaketa
- Instalazio Elektriko eta Automatikoak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza

BATXILERGOA (euskaraz eta gaztelaniaz)

- Zientziak
- Giza eta Gizarte Zientziak

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Zuzendaritzari laguntza ematea
- Administrazioa eta Finantzak
- Sistema Elektromekanikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Mekatronika Industrialak
- Fabrikazio mekanikoko Produkzioaren Programatzea

2019/2020 (AURRE)MATRIKULA EGITEKO DATAK

BATXILERGOA. Aurrematrikula: maiatzaren 2tik 14ra · **Matrikula:** ekainaren 19tik uztailaren 5era
LANBIDE HEZIKETA. Aurrematrikula: ekainaren 3tik 14ra · **Matrikula:** uztailaren 11tik 17ra



Virgen del Carmen, 17 01400 Laudio (Araba)
 Tel: 946 72 05 05 Fax: 946 72 10 57
 secretaria@laudioalde.eus
 www.laudioalde.eus

Informazio gehiago:
 www.gureskola.net
 Erabiltzailea: laudio.ikasle
 Pasahitza: laudio.ikasle

Zaraobe

Zaraobe azken letraren bila

Bernardo Atxagak ideia patentatu zuen bere Obabakoak gurekin azken hizkiaren bila Atik Zrainoko bidaiatxo ahaztezinean. Zaraobe ezagutu nahi baduzu murgildu honetan.

ARRETA MENPEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEI. Zaraobeko lanbide heziketako erdi mailako ziklo arrakastatsua da. Gizarte zerbitzu familiako ziklo bakarra da Aiaraldean. Euskaraz zein gazteleraz eskaintzen da.

BATXILLER. Batxilerrera datozen ikasleek ibilbide hirukoitza daukate hautagai: Zientifiko-teknologikoa, Giza Batxilerra eta Gizarte Batxilerra. Gure konpromisoa, aukera zabala eskaintzea, eta emaitza hoberenak lortzen ahalbidetzea unbertsitate-
ra bideratzen diren ikasleei.

CNC. Computer Numerical Control. Mekanizazio zikloan inbertsio handia egin dugu aurten, Heidenhaim kontrolarekin, eskaintza boro-
biltzeko asmoz.



DUAL. Lanbide Heziketa-ko modalitate honetan, ikasleek, enpresako prestakuntzan ematen duten ordu kopurua, hirukoitza da, modalitate arruntarekin alderatuta. Bigarren kurtsoan zehar, enpresan hainbat modululantzen dituztelaneandauden bitartean, gainera, soldata bat jasotzen dute horren truk.

ETHAZI. Etekin Handiko Zikloa. Zikloetan metodolog-
gia aktibo kolaboratiboak ezartzeko helburuarekin, Tknikak proposatutako eredu ezartzen ari gara Zaraoben, eduki teknikoak zein zeharkakoak landuz, kurtsoak erronken bidez antolatuta daude, horretarako irakasle taldearen arteko koordinaketa ezinbestekoa da, baita gela aldakorrek ere.

FORMAKUNTZA. Irakasle-
leen etengabeko prestakuntza, etengabeko hobekuntza-
ren oinarria dugu. Lanbide Heziketan zein Batxilerrera irakasle guztiak konprometituta daude formakuntza planarekin.

GURASOAK. Babio elkar-
tea eratzen dute gurasoek, eta elkarbizitzaren behatokia eta hainbat batzordetan hartzen dute parte. Beren ekarpena nahitaezkoa da gure ikastetxe-
ren funtzionamendurako.



HNP. Hizkuntza normalkuntza proiektua. Honek 1996tik dihardu euskararen erabilera eta normalizazioa bultzatzen, gure ikastetxearen proiektu estrategikoa da.

NGURUMENA. 2001. urtetik agenda 21 proiektuaren partaide da Zaraobe, eta berariazko birziklatze eta kontsumo murrizketa plana daukagu.



JOB SHADOWING. Formakuntza modalitate honetan gure irakasleek Europan zehar bidaiatzen dute eredu onak ezagutzeko. Aurten bost irakasle joan dira Finlandia edota Danimarkako ikastetxeen funtzionamendua bertatik bertara ikuskatzera. Horretaz aparte, helburu berdinarekin inguruko enpresetara ikasleak bidaltzen dituzten zikloak ere badaude.



KALITATEA. Ikastetxea ISO 2015eko kalitate estandarren arabera kudeatzen da, auditoretza zorrotzenak gaindituta. Zaraoberen funtzionamenduaren muina da kalitate departamentua.



NAZIOARTEKOTASUNA. Gure LHko ikasleek Europan zehar egin dezakete enpresetako praktikaldia.



ORIENTAZIOA. Gure orientazio zerbitzuak banakako laguntza eskaintzen die batxilerrerako ikasleei euren etorkizuna erabakitze orduan, gero eta zabalagoa den goi mailako ikasketen eskaintza erakutsita. Unibertsitate bisitak edo institutuan jasotako hitzaldiak ere oso lagungarriak dira. Eta gogoratu, gazte: zeu zara zeure etorkizunari buruzko azken hitza izan behar duena!

PERTSONAK. Makinam-
kina eta liburuak liburu, gure lanaren ardatza gure ikasleak dira, eta haien ongizatea da gure lehenengo xedea.

QZILARREZKOA. Kudeaketa aurreratuaren zilarrezko Q-a 2006an lortu zuen Zaraobek. Harrez geroztik gure Kalitate Departamentua arduratzen da kudeaketa sistemaren funtzionamendu egokiaz.

ROBOTIKA, 3D INPRIMAGAILUAK... Industria 4.0 dela eta, ikasgela honetan industriako makineriarik aurreratuena aurkitzen da, hala nola, 3D inprimagailuak eta robot kolaboratiboa beste batzuen artean. Ekipamendu hori, ziklo industrialean erabiltzen da, mantenu zikloetan bereziki.



SARE HEZKUNTZA GELAN. Zaraobe proiektu honen partaide da, IKT heldutasun ertainetik aurreratura jauzia emateko bidean.



TEKNOPOLIS. Zer da mantenu prediktiboa? Zein ziklotan lantzen da? Teknopolis programa mitikoa, Zaraobera etorri zitzaigun azalpen bila. Mekatronika goi mailako zikloan, aspalditik lantzen baita mantenu mota hori, ikasleak enpresetara joaten dira neurketak egitera.

UNIBERTSITERA SARTZEKO PROBAK. Azken zazpi urteotan Zaraobeko 351 ikasle hartu dute parte selektibitatean eta bi bakarrik atera dira "ez gai". %99,5ek gainditu dute, beraz.

VESUBIO SUMENDIA. Zaraobe Burubio mendiaren magalean kokatuta egonik, gure batxilerrerako ikasleak Vesubioren magalera bidaiatzeko aukera dute urtero, Salernoko Regina Margherita institutuko ikasleekiko trukaketa dela medio.

WWW.ZARAOPENET. Gure orrialdea etengabe eguneratzen dugu.

XETA Y EZEZAGUNAK EBATZIZ. Hezkuntza Sailaren estatistiken arabera, Zaraobeko Matematika notak Euskadiko batez bestekoaren gainetik egon dira 2018an batxilerrerako talde guztietan.

ZARA OBE, ZURE AUKERA. DBH bukatuta, ez badakizu zer egin, pentsatu: zerk egiten nau zoriontsu? Mundua zure esku duzu, eta guk, puntako irakaskuntza eskainiz, lagunduko dizugu.

Zaraobe



LANBIDE HEZIKETA

- Eredu eleanitza goi mailako zikloan
- Metodologia aktiboak, erronketan oinarrituta
- Prestakuntza DUALA ziklo industrialetan
- Erasmus programa

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA



ZURGINTZA

ERDI MAILAKO ZIKLOAK



MANTENTZE - LAN ELEKTROMEKANIKOA



MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ARRETA



MEKANIZAZIOA

GOI MAILAKO ZIKLOAK



MEKATRONIKA INDUSTRIALA



Etxebarriaur kalea, 6 01470 Amurrio, Araba
945 39 30 00 // zaraobe@zaraobe.net

www.zaraobe.net  [@zaraobeinsti](https://twitter.com/zaraobeinsti)

BATXILERGOA

- D eredu
- Banakako orientazio akademiko profesionala
- Informazio eta komunikazio teknologiak eskura
- Nazioarteko trukaketa
- Goimailako emaitzak



GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK



ZIENTZIAK

ATE IREKIAK JARDUNALDIA

- Maiatzaren 6an, astelehena
- 17:00etan



BIZITZARAKO KONPENTENTZIAK LANTZEN
PEDAGOGIA BERRITZAILEEN BIDEZ IKASI:

- Ikasiz
- Elkarbiziz
- Pertsona izanez
- Komunikatuz
- Emozioak kudeatuz



Erreportajea

Hezkuntza ez formalari lotutako hiru egitasmo antolatu ditu Kokoriko Hezkuntza Faktoriak ekaina eta irailera. Hainbat adinetako haur eta gazteei bideratuak egongo dira, eta euren ahalduntzea, autonomia eta sormena sustatzea izango dute helburu, besteak beste. Izena emateko epea irekita dago dagoeneko.

Udaleku eskaintza oparoa prestatu du Kokorikok

Aisialdi eskaintza oparoa prestatu du Kokoriko Hezkuntza Faktoriak udarako. Hiru egitasmo plazaratu ditu: udaleku irekiak, gazte udalekua eta haurrekin egonaldia.

Udaleku irekiak

Ekainean eta irailean egingo dituzte udaleku irekiak, 4 eta 13 urte bitarteko pertsonentzat. "Hiri koloniak" izango dira, antolatzaileen esanetan. "Laudio-ko Gardea auzoko Santa Cruz ermitan dagoen berdegunea haur eta gazteen eremu bilakatuko dugu hainbat txoko eskainiz beraien gaitasunak garatzeko: gorputz adierazpenerako gunea, sukalde gunea, arte eszenikoen gunea, ortu gunea, erlaxazio gunea, esperimentazio gunea...". Ekainaren 24etik 29ra izango da lehen txanda eta irailaren 2tik 7ra, aldiz, bigarrena.

Gazte(z) B(l)ai

Udaleku itxia irailaren 2tik 5era izango da, Zuhatzan. Gazte(z) B(l)ai izena jarri diote egonaldiari, 12-16 urte bitartekoei bideratua baitago. "Asanblada egiturari, bai udaleku aurretik zein bertan, nork bere nahi eta desioak plazaratzeko aukera izango du", azaldu dute antolatzaileek, "modu kolektiboan erabakiak hartuz, eta ekintzak antolatuz, gazteok gure neurriko udalekua eraikiko dugu".

Parte hartze egonaldia

Bukatzeko, parte hartze ego-

naldia egingo dute Tertangan irailaren 13tik 15era. 4 urtetik 12 urtera bitarteko haurrei zuzendutako egitasmoa izango da. Eurak izango dira "asteburupasaren gidariak", Kokoriko kideen esanetan. "Horretarako irailaren 6an arratsaldez

Hiru egitasmo egingo dituzte guztira ekainean eta irailean: udaleku irekiak, gazteentzako irteera Zuhatzara eta parte hartze egonaldia

saio bat egingo dugu haurrekin dena prestatzeko. Haurrek programazioaren ardura hartzeaz gain, elkarbizitza ohiturak adostuko dituzte, garbiketa egingo dute, kozinatu... Beraiek izango dira asteburuaren arduradunak, noski bidelagunen laguntzarekin".

Izen ematea, irekita

Izen-ematea irekita dago dagoeneko. Lau modutara egin daiteke: Aiaraaldea Ekintzen Faktoriaren bulegora bertara-



Gazte egonaldia egingo dute Zuhatzan irailaren 2tik 5era. Kokoriko Hezkuntza Faktoria

tuta (Nerbioi kalea 12, Laudio), hezkuntza@aiaraaldea.eus helbidera mezua bidalita edota Internet bidez (www.labur.eus/faktoriaudalekuak2019 helbidean). Izena emateko epeak ezberdinak dira kasu bakoitzean. Udaleku irekietan inskripzioa egiteko azken eguna ekainaren 7a da ekaineko txandarako; eta abuztuaren 23a, aldiz, irailera-ko. Azken data hori izango da baita udaleku itxian epemuga. Tertangako egonaldian inskribatzeko azken eguna, aldiz, irailaren 1a izango da.

audio language school
Open your mind!!

2019-20 matrikulazio epea irekita

INGELESA 3 Urtetik aurrera. Maila Guztiak. Elkarrizketa-Kurtsoak	ALEMANIERA Maila Guztiak Jatorrizko irakaslearekin
FRANTZESA A1 mailatik B2ra	

tel.: 652 73 32 67
 roezquerra@hotmail.com
 /AudioLanguageSchool

Murgiltze programak udan (Irlanda, AEB, Frantzia...)

KOMUNIKA

Zure komunikazio agentzia integrala

ITZULPENAK ETA INTERPRETazioA

Hitzaldiak, elkarteetako batzarrak, guraso bilera, klaustroak... euskaraz egin daitezke, gaztelerazko aldibereko itzulpena jasota.

Elkarteko, eskolako edota enpresako barne bizitza ere euskaratik eta euskaraz

INTERPRETazio ZERBITZUA ORDU BETE 150€ + tresneria 25€

TRESNERIAREN ALOKAIRUA 50€ maletina (23 entzulerentzat)

www.komunika.eus 688 625 366 info@komunika.eus